

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 1,3 milioi euro bideratuko ditu emakumearen kontrako indarkeriari aurre egiteko

Torres kontseilariak alor horretan ez dela murrizketarik izango iragarri du, krisi garaian bagaude ere

Jueves, 10 de noviembre de 2011

Nafarroako Gobernuak 1.334.650 euro bideratuko ditu emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko borrokan. Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuko kontseilari Elena Torres Mirandak iragarri du alor horretan ez dela murrizketarik izango, krisia dugun arren.

Nolanahi ere, dauden baliabideen koordinazioan aldaketak egingo dira

eraginkortasuna handitzeko xedez. Hala, duela hilabete batzuetatik, Berdintasun eta Familiarako Institutu berriaren eskumena dira, besteak beste, baliabideen koordinazioa, alokairuan edo erosita etxebizitzak izateko txostenak lantzea eta emakumeen aurkako indarkeria-alorrean bermatutako zerbitzu guztiak kudeatzea: laguntza ekonomikoak, harrera-baliabideak eta espezializatutako ekipoak.

Azken horiei dagokienez, kontseilariak aipatu du gaur egun genero-indarkerian lan egiten duten profesionalen ekarpenak jasotzen ari direla estrategia eta ibilbide-orria itxi eta Nafarroan ezartzeko. Aurten Lizarran sortutako talde espezializatu bat dago jada, eta haien jarduerak ebaluatu ondoren, 2012an ere lanean jarraituko du. Gainera, Tuteran beste bat sortuko da 2012. urtean, eta hurrengo urteetan beste lau zonalde geografiko estaliko dira erkidego osoan estaldura osoa izan arte.



Torres kontseilaria eta Iruñeko Abokatuen Elkargoko dekanu Alfredo Irujo, genero-indarkeriaren aurkako espezializazio juridikoko ikastaroaren inaugurazioan.

Torres kontseilariak adierazpen horiek egin ditu genero-indarkeriaren aurkako espezializazio juridikoko homologatutako ikastaroaren XI. edizioaren inaugurazioan. Ikastaro hori Nafarroako

Gobernuak finantzatzen du, Nafarroako Abokatuen Elkargoekin batera. Ikastaroa Iruñean burutuko da azaroaren 10etik 12ra bitartean, eta emakumeen aurkako indarkeriari lotutako hainbat esparrutako ehun bat profesional bilduko da (abokatuak, auzitegi-medikuntzako profesionalak, psikologiakoak, laguntza-baliabidetakoak eta ekimen sozialeko erakundeetako profesionalak).



Ikastarora bertaratutakoak.

Hain zuzen, kontseilariak adierazi du SAMEk, hau da, indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta juridiko espezializatua talde espezializatuetatik emango dela; azken horiek koordinatuko dituzte ere: psikologiako profesionalak, gizarte-lanekoak, gizarte-hezkuntzakoak, berdintasuneko eragileak, eta emakumeen arreta integrala hobetzen duten beste baliabide espezializatu batzuk; izan ere, Torresen iritziz, indarkeria-arloko erronketako bat da "emakumeek lan-erreferentzia bakar bat izan dezatela, eta atzetik profesionalen koordinatutako sare bat egote beren beharrei era integralean erantzuteko".

Kontseilariak iragarri du ere, legegintzaldiaren helburua izango dela, Nafarroan sexu-esplotazio izateko xedez emakumeen salerosketaren errotik kentzeko asmoan aurrera egitea; horrekin batera, Sexu Esplotazioko Helburuekin Emakumeen Salerosketaren aurka Nafarroako Foruak egin zituen jarduera-plana abian jartzea ere.

Bestalde, eta koordinazioarekin batera, eragile guztien genero eta berdintasuneko prestakuntzan aurrera egiteko beharra ikusi da, esku-hartzeko baldintza gisa; alderdi hori ere lehenasunezkoa izango da legegintzaldi honetan.

Foruzaingoak, Guardia Zibilak, Iruñeko Udaltzaingoak eta Poliziak Berdintasun eta Familiarako Nafarroako Institutura hilean behin bidaltzen dituzten datuen arabera, aurtengo irailaren 30ean 952 salaketa jaso ziren (data berean iaz jaso zena baino % 1,81 gehiago).

Horrez gain, eta institutuaren datuekin bat etorritik, 2010. urtean indarkeriaren biktima diren emakumeentzako arreta juridikoko zerbitzuaren bidez (SAM) 763 emakume artatu ziren (670 premiazko arreta-zerbitzuaren bidez eta 93 aholkularitzako programatutako arretaren bidez). Premiazko laguntzak % 0,6 murriztu ziren aurreko urtearekin alderatuz (674 izan ziren). Nabarmendu behar da ere, 11 profesionalek 2010ean jaso zutela prestakuntza genero-indarkeriaren aurkako espezializazio juridikoko homologatutako X. ikastaroaren bidez.

Genero Indarkeriaren aurkako Espezializazio Juridikoko Homologatutako Ikastaroa

Aurreratu denez, Nafarroako Gobernuaren Berdintasun eta Familiarentzako Nafarroako Institutuak, Nafarroako Abokatuen Elkargoekin batera, genero-indarkeriaren aurkako espezializazio juridikoko homologatutako ikastaroa antolatu dute azaroaren 10etik 12ra.

Hiru egun horietan zehar, emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako jarduera juridiko eta judizialean dauden gai garrantzitsuak aztertuko dira, haien artean: indarkeria horretan gutxien ikusten diren formak (sexu-esplotazioa xede duten emakumeen salerosketa, sexu-organoak moztea...), genero-indarkeriak familiaren esparru zibilean eta adin txikikoengan duen eragina, indarkeriak emakumeengan eta beraien seme-alabengan duen eragin psikologikoa, gizon gogorrak edo indarkeria-dinamikak, hedabideetan emakumeen aurkako indarkeriak zer tratamendu duen, genero-indarkeriaren Lege integrala:

Auzitegi Konstituzionalaren jurisprudentzia eta proposamen berriak, genero-indarkeriaren aurkako borrokan zer ikuspegi juridiko dauden...

Eguneratze Juridikoko ikastaro hau nahitaezkoa da Emakumeen Laguntza Juridikoaren (SAM) txandari arreta ematen dioten abokatuentzat. Zerbitzu hori Nafarroako Abokatuen lau Elkargok eskaintzen dute Berdintasun eta Familiarentzako Nafarroako Institutuarekin izenpetutako hitzarmen baten bidez, eta zerbitzu hori duela hamarkada batetik baino gehiagotik finantzatzen du. Zehazki, 2011. urte honetan, 170.000 euroekin finantzatzen da.

Hitzarmen horren barnean sartzen da Iruñea, Tuter, Tafalla eta Lizarrako Abokatuen Elkarteek informazio eta aholkularitzako zerbitzua doan eskaintzea, bai eta jarraipen nahiz laguntza juridiko berezia ematea genero-indarkeria dagoen kasuetan. Gainera, orain egiten den profesionalentzako Espezializazio Juridikoko Ikastaroa sartzen da bertan.